ihobe

UDAL TALDE 21
AGENDA LOCAL • BERTAKO AGENDA

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

# TOKIKO AGENDA 21. DIAGNOSTIKOA.

**Zigoitiko Udalerria**

| | |
|---|---|
| **Izenburua / Título:** | TOKIKO AGENDA 21. DIAGNOSTIKOA. Zigoitia (behin betikoa). Sintesiko taulak |
| **Egileak / Autores:** | Paisaia, Gestión y Ordenación del Paisaje, S.L. |
| **Hartzaileak / Destinatarios:** | Udala eta Udalerriko Batzar-Administratiboak |
| **Edizioko data / Fecha de edición:** | 2010.eko abuztuak 17 |
| **Itzulpena / Traducción** | |
| **Orriak / Páginas:** | 22 |
| **Bertsioa / Versión:** | DSG-ZI-1.5eu.doc |
| **Erreferentzia / Referencia:** | |
| **Proiektuaren hasierako data / Fecha de comienzo del proyecto:** | |
| **Iraupena / Duración:** | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Bertsioen historia / Historial de las versiones:** | Bertsioa / Versión | Data / Fecha | Ekintza / Acción | Oharrak / Notas |

# EBALUAZIO OROKORRA ETA JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK

Hurrengo orrialdeetan hainbat taula aurkezten dira, udal-diagnostikoaren edukiak, gai bakoitzak jasotako balorazioa, eta aztergai bakoitzerako identifikatu diren jarduerarako eremu-lehenetsiak laburbiltzen dituztenak.

2009.eko udazkenean, Diagnostikoa idazteko lanei ekiteko deitu zen partaidetzako bileran garrantzitsuen jo ziren gaiak itzaldura horiz markaturik agertzen dira.

| LURRALDEARI BURUZKO GAIAK. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak. | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **AZPIATALAK** | **BAL.** | **DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK** | **JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK** |
| LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA | Lurralde eremua | ☺ | ▪ Zigoitia Zuiako Taldeko bigarren udalerria da tamainari dagokionez.<br>▪ Era positiboan nabarmentzen da populazio guneen egitura orekatua eta koherentea dela, bakoitzak bere nortasuna mantentzen duen bitartean.<br>▪ Azpiegiturek lurraldearen zatiketa eragiten dute hegoaldean (N-622 eta AP-1).<br>▪ Hiri gune berde gutxi daude, Lurzoru Urbanizaezinetan balio naturalak ugariak diren arren.<br>▪ 2001ean Gorbeiako Merkataritza Zentroa ireki zen, zerbitzu sektoreari bultzada bat emanez.<br>▪ Gehien hazi diren guneak Etxabarri-Ibiña, Gopegi, Berrikano eta Apodaka izan dira.<br>▪ Ondategi-Gopegi herri nagusi moduan jokatzen du.<br>▪ Tipologia nagusia familia bakarreko etxebizitza da.<br>▪ Ez dago ez auzo eta ez gune marjinalik ere.<br>▪ Paisaia inpaktuak azpiegiturek sortzen dituzte. Duela gutxi gasbide bat eraiki da, hainbat guneri eraginak sortuz.<br>▪ Herritarrek Bengolarrako parke eta eraikina konpontzeko eta Gurutze Plazan hiriko altzariak jartzeko eskatu dute.<br>▪ HEPO berriak aukera handia ematen du irizpide berriak antolamenduan integratzeko.<br>▪ LZPak etxebizitzen hazkuntza proposatzen du Gasteizen ordezko gisa (435-825 etxebizitza berri), baina zaila suerta liteke izaera landatarra mantentzearekin bateratzea. | ▪ HAPO berriaren idazketaren harira parte hartzeetan burutzen ari den hausnarketaren ondorioak, behin betiko HAPOan islatzea eta aurrera eramatea, bereziki ondoko ardatz eta irizpideen inguruan:<br>**Gune publiko irekiak**<br>o Hiri gune publiko berdeen sare bat diseinatu eta sortu (gune berdeak, zuhaiztiak, plazak, etab.), modu egokian konektatutakoak, Zigoitiko populazio guztiari zerbitzu ematen diona, eta guneetatik inguruko balio naturaletarako sarbidea erraztuko duena.<br>o Gune publiko irekien diseinua egokitu, kolektibo desberdinen haur, adindu, etab.) eta jardueren (paseoa, kirola, festak, etab.) behar eta eskariei dagokienez barietatea egon dadin, eta erabiltzaileen ongizateari lagundu diezaion (itzala ematea udaran, euriarekiko babesa, etab.).<br>o Hiri antolamendutik gune publiko irekien sare horren babesa bermatu.<br>**Udalerriko egitura**<br>o Udalerriaren izaera landatarra kontserbatzea, baita berau osatzen duten gune guztien nortasuna ere, nekazaritza balio handiko lurzoruak garapen berrietarako erabiltzea saihestuz, eta araudia gune desberdinen ezaugarriei egokituz<br>o Landa eraikin tradizionalen birgaitzea erraztu, onartutako etxebizitza kopurua egungo errealitateari egokituz.<br>o Hazkuntza, etxebizitza eskaera endogenoari egokitu.<br>o Ondategi-Gopegi buru den rol hori mantendu.<br>o Guneen arteko konektagarritasuna erraztu, eta oztopoak gainditzeko moduak ikertu (AP-1 eta N-622 sortzen duten zatiketa).<br>**Iraunkortasuna antolamendu eta eraikuntzan**<br>o Udal plangintza eta eraikuntzan iraunkortasun irizpideak sartzea, bereziki energia berriztagarrien erabilerari dagokionez eta euri urak ureztaketan izan dezaketen baliagarritasunari dagokienez.<br>o Udalerria zeharkatzen duen gasbidearen zaharberritze lanen jarraipena egin, paisaian duen eragina desagertzen dela ziurtatzeko.<br>o Bengolarra Parkeko balioak indartu, eta mantentzea hobetu. |
| | Udal lurzoruaren egitura organikoa eta erabilerak | ☺ | | |
| | Hiri egitura eta ehundura | ☺ | | |
| | Hiriko paisaia eta gune andeatuak | 😐 | | |
| | Ondare arkitektoniko eta kulturala | ☺ | | |
| | Lurralde eta sektore antolamendua | ☺ | | |
| | Hiri antolamendua | ☺ | | |
| | Iraunkortasun irizpideak sartzea | 😐 | | |

| LURRALDEARI BURUZKO GAIAK. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak. | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **AZPIATALAK** | **BAL.** | **DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK** | **JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK** |
| ETXEBIZITZA | Etxebizitzen ezaugarriak | 😐 | ▪ Etxebizitzen dentsitatea txikia da, udalerri landatar bati dagokion moduan, altuera txikiko familia bakarreko eraikinak (1-2 solairu) nagusitzen direlarik.<br>▪ 1999 eta 2009 urteen artean etxebizitza kopurua %35 handitu den arren, lehenengo etxebizitza motakoak dira gehienak (%70).<br>▪ LZPak etxebizitza kopurua %46-87 handitzea aurreikusten du, 2010eko egoerari dagokionez.<br>▪ Etxebizitza eskaeraren inguruko ikerketaren arabera (2009), gazteen eskaera endogenoa txikia da, Gopegi, Ondategi, Murua eta Etxabarri-Ibiñan kokatzen da, eta batez ere erosketa erregimeneko BOE eskatzen da.<br>▪ HAPOak LZPak proposatzen dituen etxebizitza minimoak (521 guztira) baino 86 etxebizitza gehiago garatzea pentsatzen du, eta ahal den dentsitate txikienarekin. Isolatutako familia bakarreko tipologia gailentzen da. Etxebizitza kolektiboa Gopegi, Ondategi, Larrinoa eta Muruan egingo da. Honek etxebizitza kopurua %56,08 handitzea eragingo du.<br>▪ 2006ean 22 BOE eraiki ziren Gopegin eta 24 Ondategin. Etxabarri-Ibiñan 10 BOE aurreikusten dira.<br>▪ Herritarrak estilo arkitektonikoan batasun faltagatik kexu dira, eta eraikin berri asko ez direlako paisaian ondo integratzen. Baita gaur egun etxebizitzak elkarrengandik gertuegi eraikitzeagatik ere.<br>▪ Herritarren inkestak alokairuko BOE bultzatzea ona litzatekeela ondorioztatzen du, eta gehiegi ez eraikitzea.<br>▪ HAPO berritik birgaitzea erraztu nahi da.<br>▪ Herritarrek existitzen diren baserrietan etxebizitza berriak egitea baimentzea nahi dute, eta udalerriko ondare arkitektonikoaren birgaitzea bultzatzea.<br>▪ Ia ez dago alokairuko etxebizitzarik.<br>▪ Etxebizitzaren prezioa oso altua da, gazteak udalerritik kanpo joan beharra eragiten duena. | ▪ HAPO berriaren idazketaren harira parte hartzeen hausnarketan ateratzen diren proposamenak, behin betiko HAPOan islatzea eta aurrera eramatea, bereziki ondoko gaien inguruan:<br>**Etxebizitza tipologia eta erabilera**<br>o Udalerrirako aurreikusten den etxebizitzen hazkuntzak eragingo dituen lurralde-, gizarte- eta ingurumen-inplikazio eta nagusitzen den familia bakarreko etxebizitza tipologiari buruzko hausnarketa egin. Bateragarritasuna ikertzeko eta hiri ehundura kohesionatu eta bizia mantentzeko hausnarketa hedatu, Udalerriaren izaera landatarra mantentzeko helburuarekin.<br>o BOE eta alokairuko etxebizitza soziala bultzatu, horretarako Eusko Jaurlaritzarekin etxebizitza sozialerako beharrezko kudeaketak eginez.<br>o Aurretik existitzen diren etxebizitza eta eraikinen zaharberritzea sustatu (bai arauditik, baita neurri fiskal/ekonomikoen bidez ere), etxebizitza hutsen kopurua murriztu eta eraikin berriak eraikitzea saihesteko asmoz.<br>o Etxebizitza nagusiaren erabilera sustatuko dituen neurriak hartu, bigarren etxebizitza/etxebizitza hutsen kopurua murrizteko helburuarekin.<br>o Eraikinen kanpo irudiarekin erlazionatutako aspektuak arautu, paisaian modu egokian integratzeko eta udalerriko gune bakoitzaren nortasuna errespetatzeko asmoz.<br>**Iraunkortasuna**<br>o Etxebizitzetan ura aurreztea sustatu: eraikini berrietan eta eraikin zaharretako zaharberritze garrantzitsuetan, euri ura baliatzeko sistemak instalatzea behartu, eta igerileku pribatuen instalazioak erregulatu.<br>▪ Zigoitin alokairuko etxebizitza soziala eskaini (udalaz gaindikoa). |
| | Etxebizitza hutsak | 🙂 | | |
| | Etxebizitzen zaharberritzea | 😐 | | |
| | Higiezinen eskaintza: eraikuntza | 🙂 | | |
| | Etxebizitza beharra eta eskaera | 😐 | | |
| | Eskaintza-eskaera balantzea | 😐 | | |
| | Etxebizitzen salneurria | ☹ | | |
| | Erakundeen arloa | ? | | |

<table>
<tr><th colspan="5">LURRALDEARI BURUZKO GAIAK. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak.</th></tr>
<tr><th></th><th>AZPIATALAK</th><th>BAL.</th><th>DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK</th><th>JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK</th></tr>
<tr><td rowspan="12">MUGIKORTASUNA</td><td>Eguneroko mugikortasun beharra</td><td>☹</td><td rowspan="12"><ul>
<li>Herritarren gehiengoak kanpoan ikasi/lan egiten du, eta ondorioz mugikortasun beharra handia da.</li>
<li>Mugitzeko autoa erabiltzen da gehienbat, eta horrek motorizazio indizea altua izatea eragiten du.</li>
<li>Udalerriak gune ugari ditu, sakabanatuak eta garraio publikorik gabekoak.</li>
<li>Lursailak argiztatu gabe daude, eta errepideek ez dute espaloirik, oinezko eta bizikletentzako arriskua suposatzen duena.</li>
<li>Hiriarteko garraio publikoak gabeziak ditu: autobus linea batek Etxaguen, Murua, Larrinoa, Ondategi, Gopegi eta Apodaka Gasteizekin lotzen ditu; baina ez dago zerbitzurik aste bukaeran; beste linea bat Gasteizetik Gorbeako Merkataritza Zentrora joaten da bakarrik.</li>
<li>Taxi baimen bat existitzen da, oraindik ez-aktiboa dagoena.</li>
<li>Herri askotan ez dago markesinarik.</li>
<li>Herritarrek autobus linea gehiago eskatzen dituzte, autobus-txartela ezartzea, eta aste bukaeran garraio publikoa egotea. Pertsona batzuk Etxagueneko autobusak Gasteizen geltoki bat baino gehiago edukitzea eskatzen dute, bai joaterakoan eta bai itzulterakoan.</li>
<li>Jubilatutako pertsonak astean bi egunetan autobusa dute Ondategira joateko.</li>
<li>Zigoitik potentziala du bizikleta eta oinezkoen mugikortasuna sustatzeko, eta baita mendi-ibilia eta zikloturismoa garatzeko ere.</li>
<li>Udal eraikin batzuk ez dira irisgarriak.</li>
<li>Ez dago bidegorririk, eta herritarrek guneak Ondategirekin lotuko dituen bidegorriak egitea eskatzen dute. Zigoitia Gasteizekin lotu liteke bidegorrien bidez.</li>
<li>Oinezkoentzako bide sare zabala dago, hobeto seinalizatua egon daitezkeen arren. Herritarrek udalerriko gune desberdinak lotzen dituzten bideak zaharberritzea eskatzen dute.</li>
</ul></td><td rowspan="12"><ul>
<li>Irisgarritasunerako Udal Plana idatzi.</li>
<li>Mugikortasunerako Udal-Plana idatzi, ondoko helburu eta ekimenekin:
<ul>
<li>Garraio publikoaren eskaintza herritarren eskaerei egokitu.</li>
<li>Garraio publikoko konpainiei herritarren eskariak helarazi.</li>
<li>Garraio publikoko geltokiak modu egokian seinalizatu.</li>
<li>Udalerriko gune desberdinen arteko garraio publikoaren bidez barne loturetarako eta Zuiako Taldeko beste guneetarako aukerak ebaluatu.</li>
<li>Arabako Foru Aldundiari udalerrian garraio-txartela ezartzeko eskatu, udalerria zeharkatzen duten azpiegiturek sortutako zarataren aurkako pantailak jartzeko, A-3608-ko kurbak konpontzeko, San Pedroko Baserrien bideen zatia hobetzeko ibilgailu astunak bertatik igarotzea ahalbidetzeko, udalerriko gune desberdinak lotzen dituzten bideak hobetzeko, eta Muruatik Etxaguenera doan saihesbidean errotonda bat eraikitzeko aukera aztertu.</li>
<li>Bidegorri eta oinezko bideen sare bat diseinatu, hauek erabilgarriak izan daitezen udalerri barruko herritarren eguneroko mugikortasunerako, abeltzaintza, basogintza eta nekazaritza jarduerataerako, eta aisialdirako erabileretarako, eta gainera, hauek seguruak izan behar dira.</li>
<li>Bidegorri sare, paseo, bide, bidexka eta lursailen erabilera antolatu eta erregulatu, aisialdirako erabileren presioa kontrolatzeko, motorizatutako ibilgailuen sarreraren ondoriozko andeatzea saihestu, eta abeltzaintza, nekazaritza eta basogintza lanak erraztu.</li>
<li>Bidegorri sare, paseo, bide, bidexka eta lursailen egokitzapen beharrak planifikatu, aurreikusitako erabilera eta egungo egoeraren arabera, beharrezkoak diren lehentasunak ezarriz.</li>
</ul></li>
</ul></td></tr>
<tr><td>Mugikortasunaren kudeaketa eta antolaketa</td><td>😐</td></tr>
<tr><td>Garraio publikoa</td><td>☹</td></tr>
<tr><td>Oinezkoen eta bizikleten sareak</td><td>😐</td></tr>
<tr><td>Bide sarea</td><td>😐</td></tr>
<tr><td>Lurraldeko loturak eta irisgarritasuna</td><td>☺</td></tr>
<tr><td>Landa bideen sarea</td><td>☺</td></tr>
<tr><td>Aparkalekua</td><td>😐</td></tr>
<tr><td>Motorizazioa eta ibilgailuak</td><td>😐</td></tr>
<tr><td>Istripuak</td><td>😐</td></tr>
<tr><td>Salgaiak</td><td>?</td></tr>
<tr><td>Bide hezkuntza</td><td>😐</td></tr>
</table>

| LURRALDEARI BURUZKO GAIAK. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak. | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | AZPIATALAK | BAL. | DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK | JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK |
| | | | ▪ Gopegiko bi tabernen artean, Eriben eta Etxaguenen zebrabide edo abiadura moteltzaileak jartzeko eskariak existitzen dira, baita ingurabide bat egiteko, eta zarataren aurkako hesiak jartzeko.<br>▪ Lursailen egoera desberdina da batetik bestera. Bizikidetza ona dago erabiltzaile desberdinen artean.<br>▪ Espaloien estiloak uniformizatu egin behar dira, eta bere irisgarritasuna hobetu.<br>▪ Landa bideak nahiko ondo daude, Akostatik San Pedroko Baserrietarako zatia eta Elosu izan ezik.<br>▪ Aparkaleku arazoak daude mediku kontsultategi eta ikastetxeko guneetan.<br>▪ Ondategiko igerilekuetan autobusentzako aparkaleku-gune bat falta da, eta baita udalerrian kamioientzako aparkaleku gune bat ere.<br>▪ Istripuen datuak handiak dira, baina kontuan izan behar da AP-1 eta N-622 udalerritik igarotzen direla.<br>▪ A-3608-an kurba arriskutsu bat dago, San Pedroko Baserrien zatiak ibilgailu astunen igarobide arazoak daude, eta Muruatik Etxaguenerako saihesbidea arriskutsua da.<br>▪ Istripu ugari daude orein eta basurdeengatik.<br>▪ TA21eko adierazleen inkestan hainbat pertsona elurra kentzeko makinagatik kexatu dira.<br>▪ Ez da bide hezkuntza kanpainarik egiten. | o Gasteizekin kontaktua ezarri, bi udalerriak lotuko dituen bidegorria sortzeko asmoz.<br>o Udalerriko guneen arteko jubilatuen mugikortasunerako dauden erraztasunak hobetzeko aukerak baloratu.<br>o Espaloiak berritu eta eraiki beharrezkoa den lekuetan.<br>o Errepide, bide eta bidexken argiztapen eta seinalizazioa hobetu.<br>o Gopegiko bi tabernen artean, Eriben eta Etxaguenen zebrabide edo/eta abiadura moteltzaileak jartzeko beharrezko kudeaketak egin.<br>o Ondategiko igerilekuetan autobusentzako aparkalekuak sortzeko aukerak aztertu, eta kamioentzako aparkalekuak udalerriko tokiren batean.<br>o Herritarrei zuzendutako aparkaleku eta gune barneko abiaduraren inguruko sentsibilizazio ekimenak burutu.<br>o Gasteizerako desplazamenduetarako autoa partekatzeko ekimenak martxan jartzearen bideragarritasuna aztertu.<br>o Udalerrian istripu kopurua murriztu, eta udalerritik igarotzen diren ibilgailuen abiadura kontrolatu.<br>o Bide hezkuntza eta mugikortasuneko jardunbide egokien inguruko kanpainak maiztasunez burutu.<br>▪ Udalerritik igarotzen diren ibilgailuen abiadura egokitu eta kontrolatu (udalaz gaindikoa).<br>▪ Udalerriko errepideen argiztapena eta seinalizazioa hobetu (udalaz gaindikoa).<br>▪ Udalerrian garraio txartela ezarri (udalaz gaindikoa).<br>▪ Udalerria zeharkatzen duten azpiegiturek sortutako zarataren aurkako pantailak jarri (udalaz gaindikoa).<br>▪ A-3608-ko kurbak konpondu, San Pedroko Baserrien zatia hobetu ibilgailu astunak zeharkatzea ahalbidetzeko, eta udalerriko gune desberdinak lotzen dituzten bideak hobetu (udalaz gaindikoa).<br>▪ Muruatik Etxaguenera doan saihesbidean errotonda bat eraikitzeko aukera aztertu. |

| LURRALDEARI BURUZKO GAIAK. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak. | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **AZPIATALAK** | **BAL.** | **DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK** | **JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK** |
| BIODIBERTSITATEA ETA PAISAIA | Natura eta paisaia balioak | ☺ | ▪ Zigoitik natura eta paisaia ondare bikaina du.<br>▪ Udalerriko zati garrantzitsu bat Natura 2000 Sarean dago (Gorbeiako Garrantzi Komunitarioko Lekua eta Zadorrako Sistemako Urtegiak), udalerriko %50 baino gehiago EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan agertzen da, eta Ipar eta Mendebaldeko guneak EAEko Korridore Ekologikoen Sarea osatzen dute.<br>▪ Udalerriaren erdia baino gehiago basoa da, zati handi bat baso naturala (baso naturalaren ehunekoa EAEko bataz bestekoa baino %59 handiagoa da).<br>▪ Habitaten kontserbazio egoera ona da, Gorbeiako Parke Naturaleko aisialdirako erabileren presioa, artzaintza bertan behera uztea faktore negatiboa da, eta Gorbeiako tontorrera zuzendutako bidexken seinalizazioaren gabezia dago, jendea gehiegi sakabanatzea eragiten duena.<br>▪ Balio naturalak udalaz gaindiko arautegiagatik daude babestuak, eta baita udal antolamenduan ere.<br>▪ Udaletxetik Parke Naturaleko Patronatuak bere funtzionamendua hobetu dezakeela uste da.<br>▪ Udaletxe eta Udalbatzen jabetzapean dauden Erabilera Publikoko hainbat Mendi daude, 8.583 ha gehituz (udalerriko azaleraren %84,24), bere kudeaketan puntualki parte hartzen dutelarik. Sute-zoriak mantentzen dira eta baita hildako egurren aprobetxamendua ere.<br>▪ Herritarrek baliabide naturalen ustiakuntza jasangarria eskatzen dute, Oketako pinudiaren kudeaketa plan bat, otsoaren gaineko jarrera bat hartzea eta ehiza postuak herritik urruntzea. | ▪ HAPO berriak natura eta paisaia balioak modu egokian islatzen dituela ziurtatu, aldi berean pairatzen dituen presio eta mehatxuei erantzuna ematen dietela ziurtatuz.<br>▪ Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jartzea Natura 2000 sareko BZGetatik udalerrian eragina duena antolatzeko dokumentuen idazketa lanen nondik norakoak ezagutzeko asmoz. Helburua HAPO berriak jasoko dituen xedapenak dokumentu horiekin bateragarriak direla bermatzea izango da.<br>▪ Gorbeiako Parke Naturalaren kudeaketan modu aktiboan parte hartu, bai Udaletxearen eta Patronatuan Batzar Administratiboen aldetik, eta bai herritarren aldetik ere. Herritarren parte hartzea bideratzeko, bereziki horretan jardungo den batzorde edo talde bat sortu daiteke.<br>▪ Gorbeiako tontorrera doazen bidexken seinalizazioa hobetzeko beharrezko kudeaketak egin.<br>▪ Lendiako gune karstikoa hobetu eta balioa eman, bere erabilera publikorako.<br>▪ Udalbatza eta Udaletxearen jabetza duten Erabilera Publikoko Mendien antolamendu eta kudeaketan era aktiboan parte hartzea, Arabako Foru Aldundi eta Udaletxe eta Administrazio Batzordeen arteko elkarlana bultzatuz.<br>▪ Otsoaren kudeaketaren inguruko udalerriko jarrera ezartzeko hausnarpen prozesu bat ireki, eta Arabako Foru Aldundiari ezagutzera eman.<br>▪ Ehiza-esparruak populazio guneetaraino iristearen abantaila eta desabantailak aztertu eta herritarrei hauen muga eta funtzionamenduaren gaineko informazioa eman.<br>▪ Gorbeiako tontorrera doazen bidexken seinalizazioa hobetu (udalaz gaindikoa). |
| | Kontserbazio egoera | ☺ | | |
| | Jardueren eragina eta arriskuak | 😐 | | |
| | Babestutako Naturguneak | 😐 | | |
| | Naturgunearen kudeaketa eta antolamendua | ☺ | | |

UDAL TALDE 21

| GARAPEN SOZIALA. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak. | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **AZPIATALAK** | **BAL.** | **DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK** | **JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK** |
| BIZTANLERIA | Testuinguruan kokatzea | ☺ | ▪ Zigoitia Zuiako taldetik azken 10 urteetan hazkuntza demografiko handiena izan duen udalerria da (%47).<br>▪ Populazio berriaren gehiengoa Gasteizetik etorri da. Hoberen integratu direnak seme-alabak dituztenak dira.<br>▪ Populazio dentsitatea hazten doa, txikia izaten jarraitzen duen arren.<br>▪ Zigoitia populazio gaztea duen udalerria da, eta generoari dagokionez orekatua da.<br>▪ Populazio etorkin atzerritarra txikia da.<br>▪ Larrinoa izan da azken hamarkadan populazioa galdu duen gune bakarra, Gopegi %150 hazi den bitartean.<br>▪ 17 guneetatik 6k, 100 biztanle baino gehiago ditu. | ▪ Udalerrian erroldatuta egotearen garrantziaren inguruko sentsibilizazio kanpainak burutu eta neurri ezberdinen bidez erroldatzea sustatzeko aukera aztertu. |
| | Biztanleriaren bilakaera | ☺ | | |
| | Egitura demografikoa | ☺ | | |
| | Mugimendu naturala eta migratzailea | ☺ | | |
| | Banaketa lurraldeka | ☺ | | |
| OSASUNA, ONGIZATEA, BIZIKIDETZA ETA OINARRIZKO ZERBITZUAK | Gizarte arazoak | ☺ | ▪ Etxabarri-Ibiñan egoitza pribatu bat dago (publikoa den bat faltan botatzen da), eta Landa Eremuan Eguneko Laguntza Zentroak 6 pertsonako itxarote-zerrenda du, horregatik 2010ean zabaltzea aurreikusten da.<br>▪ Udal inkestan gizarte zerbitzuak oso ondo baloratuta daude.<br>▪ Gastu soziala baxua da EAE, Araba eta eskualdekoarekin alderatuta, baina gizarte laguntzarako eskaera gutxi daude.<br>▪ Emakumezkoen aktibitate eta okupazio tasa eskualde, Araba eta EAEkoa baina hobea da. Udal korporazioan 5 zinegotzi daude gizonezkoak direnak eta 4 emakumezkoak, eta alkatetza emakume batek du.<br>▪ Adiskidetzea hobetu beharra dago, zeinetarako udalerriko hezkuntza zerbitzuetarako zainketa zerbitzu bat martxan jarri nahi den.<br>▪ Hainbat pertsona ez dira herriko bizitzan integratzen.<br>▪ Gazteentzako azpiegituretan gabeziak detektatzen dira.<br>▪ Beharrezkoa ikusten da pediatria zerbitzua edukitzea, eta hori lortzeko kudeaketak egiten ari dira, Urkabustaizekin batera.<br>▪ Herritar batzuk ez dituzte eguneratuta Osasun Txartelean egoitzako datuak, osasun zerbitzuen beharra justifikatzea zailtzen duena.<br>▪ Telefono mugikorreko estaldura arazoak daude Gopegi-Ondategin. Antena bat jartzen ahalegindu zen, baina errefusa egon zen gizartearen aldetik. | ▪ Udal Gizarte Zerbitzuen lan zabalarekin jarraitu.<br>▪ Landa Eremuan Eguneko Laguntza Zentroaren zabalpena ahalbidetzeko beharrezko kudeaketak egin, itxarote-zerrenda desagertuz.<br>▪ Udalerriko Gizarte Zerbitzutik udalerrian egoitza publiko bat sortzeko aukerak baloratu.<br>▪ Sentsibilizazio ekintzak burutu, Osasun Txartelaren egoitza datuak eguneratzearen garrantziaren ingurukoak.<br>▪ Gopegin kokatzen diren gizarte zerbitzu, osasun zerbitzu eta instalazioetara beste populazio guneetako herritarrek sartzeko duten erraztasuna aztertu.<br>▪ Gizarte Zerbitzuen Udaletxeko gastu ekonomikoa une bakoitzeko beharrei egokitu.<br>▪ Udalerriko talde politiko desberdinen artean udal mailan berdintasunaren inguruko akordio eta helburu partekatuak ezarri.<br>▪ Udal kontratazio publikoetan gizarte baldintzak integratu, berdintasun; bizitza pertsonal, familiar eta laboralaren kontziliazio; eta lanbidearen kalitate; etab.arri lotutakoak.<br>▪ Arabako Foru Aldundiari Lurralde Historikoko udalerri txikiei berdintasun arloko laguntza teknikoa errazteko ekimen bat abian jar dezan eskatu, Gipuzkoan Berdinsarearekin egin denaren parekoa. |
| | Gizarte zerbitzu eta ekipamenduak | ☺ | | |
| | Udalaren gastu soziala | 😐 | | |
| | Gizarte politika zehatzak | ? | | |
| | Berdintasuna lan-arloan | ☺ | | |
| | Berdintasuna udal mailan | ☺ | | |
| | Berdintasun politikak | 😐 | | |
| | Herritarren segurtasuna | ☺ | | |
| | Kohesio soziala | ☺ | | |
| | Sektore zehatzetarako zerbitzu eta ekipamenduak | 😐 | | |
| | Gizabidea | ☺ | | |
| | Osasun ekipamenduak | 😐 | | |
| | IKTetara irisgarritasuna | 😐 | | |

| GARAPEN SOZIALA. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak. | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **AZPIATALAK** | **BAL.** | **DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK** | **JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK** |
| | IKTen erabileraren sustapena | ☺ | ▪ ADSL moduan internetera konektatzeko arazoak daude; gune batzuetan WIMAX bitartez konpondu zen, baina beste batzuetan horrela ere ez.<br>▪ Ez dago kutxazainik, ez eta banku-bulegorik ere. Badago Vital Kutxako bulego mugikor bat. Kudeaketak egiten ari dira kutxazain bat jartzeko.<br>▪ Gutunontzi bakarra dago, eta postari bakarra, nahikoa ez dela uste delarik. Correos zerbitzuaren gaineko kexak daude, bai entrega atzerapenagatik eta bai Etxaguen eta Zigoitia Aramaiorekin nahasteagatik.<br>▪ TA21eko adierazleen inkestan haurrentzako parke gehiago jartzeko eskaerak jaso dira. | ▪ Udalerriko hezkuntza zerbitzuetarako zainketa zerbitzu bat martxan jarri.<br>▪ Udalerriko gazte eta nerabeei zuzendutako aisialdirako eskaintza eta azpiegiturak hobetzeko aukerak ikertu.<br>▪ Haurrentzako jolaserako gunearen eskaintza eskariari egokitzen zaion aztertu.<br>▪ Comarcarabarekin kudeaketekin jarraitu, pediatria zerbitzua ezartzea lortzeko, Urkabustaizeko Udaletxearekin batera.<br>▪ Udalerriko hainbat gunetan ematen diren Internetera konektatzeko eta telefono mugikorreko estaldurako arazoen jatorria aztertu, parte hartzearen bidezko irtenbide egokiena bilatzeko aurrerapauso bezala.<br>▪ Polizia kopurua egokitzea beharrezkoa den aztertu.<br>▪ Banku-entitate batek edo gehiagok udalerrian bulegoak ezartzeko eta kutxazain automatikoak jartzeko beharrezkoak diren kudeaketak egin.<br>▪ Correos-i banaketa maiztasuna handitzea eskatu, eta gutunontzien kopurua handitzea, eta udalerrian bulego bat ezartzea ere.<br>▪ Landa Eremuan Eguneko Laguntza Zentroa zabaldu (udalaz gaindikoa).<br>▪ Udalerrian pediatria zerbitzua ezarri (udalaz gaindikoa). |
| | Beste oinarrizko zerbitzu batzuk | ☹ | | |

| GARAPEN SOZIALA. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak. | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **AZPIATALAK** | **BAL.** | **DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK** | **JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK** |
| HEZKUNTZA, EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA | Hezkuntza eskaintza | ☺ | ▪ Ikasketa Profesionaleko Zentro berri bat eraikitzen ari da Gopegin, eta amaitu bitartean ikasleak hainbat eraikinetan banatzen dira.<br>▪ Etxabarri-Ibiñari Gasteizeko hezkuntza zentroak egokitzen zaizkio, eta Batzar-Administratibotik Zigoitikoa egokitzeko eskatu da.<br>▪ 2010-2011 ikasturtetik aurrera Gopegiko Gorbea Eskolako ikasleei Duranako bigarren mailako zentroa egokitzen zaie erreferentzia zentro gisa. Egoera hau aldatu egingo da Murgiako bigarren mailako zentro berriaren eraikuntzarekin.<br>▪ Hezkuntza eskaria finkatuta dago.<br>▪ Populazioa geroz eta trebatuagoa dago.<br>▪ %50 baino gehiago dira euskaldunak eta sasi-euskaldunen artean, baina gaztelaniaz hitz egiten da gehienbat.<br>▪ Zuiako Taldean euskara teknikaria dago, Mintzalagun eta euskarazko klaseak udalerrian. Euskararen Erabilera eta Sustapenerako Plan Orokorra egiten ari da. Udaletxeak laguntzak ematen ditu matrikula eta barnetegientzat, bai eta ekintzak antolatzeko laguntzak ere. Kirol ikastaroak gaztelaniaz dira, jarduera kulturalak elebidunak, eta Zigoitia Euskaraz ospatzen da 1988. urtetik.<br>▪ Herritarrek euskaraz ematen diren haurrentzako jarduerak eskatzen dituzte.<br>▪ Zentro soziokulturala Ondategin dago.<br>▪ Herritarrek 2010erako liburutegi batean inbertitzea, zinema eta antzerki eskaintzaren publizitatea hobetzea, eta gizarte zentroaren ikastaroen ordutegiak hobetzea eskaintza asteburura zabalduz, proposatu du.<br>▪ Eskaintza kulturala oso zabala da, gehiegizkoa agian, pertsona batzuen iritziz. | ▪ Udalerriko bigarren mailako ikasleak zentro berdinera joan daitezen beharrezko kudeaketak egin, Zuiako Zentroa amaituta dagoenean, hau lehenetsiz.<br>▪ Etxabarri-Ibiñan bizi diren ikasleei Zigoitiko Udalerriko hezkuntza zentroak, eta ez egun gertatzen den moduan Gasteizekoak, egokitzeko, Eusko Jaurlaritzari egindako eskariaren jarraipena egin.<br>▪ Udalerriko Ikasketa Profesionaleko Zentro berria aurreikusitako epeen barruan gauzatzeko beharrezko kudeaketak egin.<br>▪ Eskolaz kanpo, kirol, kultura eta euskararen sustapenerako ekintzen antolakuntza-lan zabalarekin jarraitu, udalerriko elkarte eta talde anitz eta aktiboen aldetik.<br>▪ Eskolaz kanpoko jarduerak indartu, bere 2 funtzioei lotutakoak: udalerriko haur eta gazteen arteko kohesio elementu gisa jokatu, eta euskararen erabilera indartu.<br>▪ Ekintza ekonomikoen garapenerako udal politika eta lan eskaintza aztertu, herritarren ikasketa mailaren etengabeko hazkundeari lotuta, eta lan eustea hobetzea ere aztertu.<br>▪ Euskararen Erabilera eta Sustapenerako Plan Nagusitik eratorritako ekintzak martxan jarri, eta euskara ikasteko eta bere sustapenerako ekintzen antolamendurako laguntzen bidea sendotu, batez ere Zigoitia Euskaraz.<br>o Euskararen inguruko udal politika eta ekintzak helduen artean erabilera handitzeko norabidean jarri, eta herritarrak egunerokotasunean euskara erabiltzea sustatzekoan. |
| | Hezkuntza eskaera | ☺ | | |
| | Eskaintza-eskaera balantzea | 😐 | | |
| | Heziketa emaitzak | ☺ | | |
| | Euskalduntze maila | 😐 | | |
| | Ekipamendu eta baliabideak | ☺ | | |
| | Udal politikak | ☺ | | |
| | Euskara udal jardueran | 😐 | | |
| | Euskara eta kultura | ☺ | | |
| | Kultur ekipamenduak | ☺ | | |
| | Kultur jarduerak | ☺ | | |
| | Herritarren dinamika kulturala | ☺ | | |
| | Kirol ekipamenduak | 😐 | | |
| | Kirol jarduerak | ☺ | | |
| | Herritarren kirol dinamika | ☺ | | |

| GARAPEN SOZIALA. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak. | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | AZPIATALAK | BAL. | DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK | JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK |
| | | | ▪ Kultura Kontseilu bat dago, bi hilabetez behin elkartzen dena.<br>▪ Gateez autokudeatutako gela itxi zen, eta lokal berri bat irekiko da beraientzako.<br>▪ Elkartze-ehundura oso aberatsa eta aktiboa da.<br>▪ Frontoia erabileraz gainezka dago, eta herritarrek polikiroldegi bat eskatzen dute, eta baita Bengolarrako aisialdirako gunea birgaitzea.<br>▪ Ia gune guztiek dute bolatokia. | o Udal jardueretan euskararen erabilera zabaldu: jarduerak euskaraz antolatu, herritarrekin komunikatzeko euskararen erabilera handitu, etab.<br>▪ Zuiako Taldeko euskara teknikariaren irudia indartu.<br>▪ Liburutegi bat irekitzeko aukerak aztertu.<br>▪ Kultura Kontseilua mantendu eta bere protagonismo eta funtzioak indartu, posible bada.<br>▪ Udaletxe eta udalerriko talde eta elkarteak antolatutako jardueren koordinazioa hobetzeko formulak bilatu, eskaintza kulturala aberatsa eta orekatua izan dadin urte guztian zehar.<br>o Kirol eta kultura jardueren agenda orokor bat sortu, eta herritarren artean zabaldu.<br>▪ Batzar Administratiboetan diseinatu eta garatutako kirol, kultura edo eskulan ikastaroetarako Udaletxetik diru laguntzak emateko aukerak aztertu, betiere ezarritako baldintzak betetzen badira (parte hartzaile kopuru minimoa, etab.).<br>▪ Inguruko udalerrietako Udaletxeekin kontaktua ezarri, kirol eta ekipamendu kulturalak partekatzeko aukerak baloratzeko, modu honetan udalerri bakoitzak egiten dituen inbertsioei etekin handiena ateratzeko asmoz, eta herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko, honako gai hauek jorratuz, besteak beste:<br>o Instalazioen eraikitze eta berritzeari buruzko informazioa partekatu, baita antolatzen diren ekintzei buruzkoa.<br>o Udalaz gaindiko erabilera eta kudeaketa izango dituen kirol ekipamenduak sortzeko aukeren inguruan hausnartu, batez ere mantentzean gastu eta inbertsio handienak suposatzen dituztenak, igerilekuak kasu.<br>o Hitzarmenak zabaldu, herritarrei udalerri desberdinetako kirol instalazioetara irisgarritasuna bermatzeko.<br>o Garraio publikoaren bidez, udalerri desberdinetako kirol instalazioetara irisgarritasuna errazteko aukerak aztertu.<br>▪ Kirol ekipamendu eta instalazioetako inbertsio eta hobekuntzak egiteko plan bat idatzi, hauen egoeraren balorazioa egin ondoren, Udaletxe eta Batzar Administratiboen artean.<br>▪ Ikasketa Profesionaleko Zentro berria gauzatu (udalaz gaindikoa). |

| GARAPEN EKONOMIKOA. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak. | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **AZPIATALAK** | **BAL.** | **DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK** | **JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK** |
| JARDUERA EKONOMIKOAREN EGITURA ETA MAILA | Eredu ekonomikoa<br>Jarduera ekonomikoaren maila<br>Familiaren ongizate ekonomikoa | ☺<br>☺<br>☺ | ▪ Orokorrean, jarduera ekonomiko gutxi dago udalerrian, eta biztanleriaren gehiengoak udalerritik kanpo egiten du lan.<br>▪ Udalerriko eredu ekonomikoa 2001ean Merkataritza Zentroaren irekierarekin aldatu zen. Geroztik, zerbitzu sektorea da gailentzen dena. Etxebizitzen hazkuntzak hirugarren sektoreari bultzada bat eman dio.<br>▪ Industria Etxabarri-Ibiñako industria gunean biltzen da.<br>▪ Udalerriko BPG oso altua da.<br>▪ Per capita errenta Arabako eta EAEko bataz bestekoa baino altuagoa da. | ▪ Udalerrian jarduera ekonomikoen dibertsifikazioa bultzatu.<br>▪ Tokiko ekimenen sorrerak bultzatu, jarduera ekonomiko berrien inplantaziorako eta existitzen diren jarduerei (batez ere lehen sektore eta saltokiei lotutakoak) balio erantsi handiagoa emango dieten hobekuntzen sorrerarako.<br>▪ Udalerrian lanpostu kualifikatuak sortzea bultzatu, lan eskaintza herritarren egungo perfilari egokitzeko, hauen heziketa eta formakuntzari dagokionez. |
| ENPLEGUA ETA LAN-MERKATUA | Biztanleria aktiboa<br>Biztanleria okupatua<br>Langabezia<br>Kontratazioa<br>Laneko mugikortasuna<br>Enplegu eta prestakuntza politikak<br>Telelana | ☺<br>☺<br>☺<br>😐<br>😐<br>?<br>? | ▪ 2001ean aktibitate tasa eskualde, Araba eta EAEko bataz bestekoa baino altuagoa zen.<br>▪ Okupazioa sektore desberdinen artean nahiko dibertsifikatua dago.<br>▪ Enplegagarritasuna altua da.<br>▪ Langabeziaren azken datuak (%4,70) EAEko bataz bestekoak (%11,89) eta Arabakoak (%11,62) baino nabarmen baxuagoak dira. Udaletxeak udalerriko pertsona langabetu bat kontratatu nahi izan duenean, inor ez zegoela ohartu zen.<br>▪ Kontratuen errotazioa eskualde/Araba/EAEkoaren parekoa da.<br>▪ Mugagabeko kontratuak 2005 eta 2007 artean jaitsi egin ziren, baina emakumezkoak sinatutakoen portzentajea igo egi zen.<br>▪ Emakumezkoen kontratuen errotazioa altuagoa da gizonezkoena baino, beraz emakumezkoen enplegu kalitatea okerragoa da.<br>▪ 2009an, kontratuen %69 emakumezkoek sinatu zituzten.<br>▪ Gehiengoak Gasteizen eta inguruko industria guneetan egiten du lan.<br>▪ Zuiako Taldetik enplegu zerbitzu bat existitzen da. | ▪ Zuiako Taldeko enplegu zerbitzuarekin elkarlanean aritu, emakumezkoen enplegu kalitatea hobetzeko aukerak ebaluatu, kontratuen errotazioa murriztu eta emakumezkoen kontratazioa handitzeko asmoz.<br>▪ Udalerriko pertsonez baliatu udal kontratazioetarako, kanpo enpresei lehiaketara ateratzea saihestuz ahal den neurrian.<br>▪ Udal Mugikortasun Planaren barnean, lan kontuagatik Gasteizera joan behar den populazioaren mugikortasunarekin erlazionatutako aspektuak integratu. |

| GARAPEN EKONOMIKOA. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak. | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **AZPIATALAK** | **BAL.** | **DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK** | **JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK** |
| LEHEN SEKTOREA | Sektorearen egitura | ☹ | ▪ Lehen sektorea eskasa dela esan daiteke, baina orekatua mantentzen da.<br>▪ Eragin sozial eta ekonomikoa txikia da, baina eskualde, Araba eta EAEkoa baina zertxobait altuagoa: okupatutako populazioa %48 jaitsi zen 1996-2001 urteen artean, eta Balio Erantsi Gordina murriztua izan da (%2,82), baina EAE (%0,90), Araba (%1,85), edo eskualdean (%2,48) baino handiagoa, beraz, sozioekonomikoki udalerri landatar bat dela esan daiteke.<br>▪ Ustiategi kopurua ia ez da aldatu 1999tik 2007ra, baina mantentzen duten azalera %73 murriztu da, beraz lurraldean geroz eta eragin txikiagoa dute.<br>▪ Hala ere, udalerriaren %88,6 nekazaritza eta basogintza erabilerak ditu.<br>▪ Ardi azienda %56 handitu da 1989 eta 2009 urteen artean.<br>▪ Belaunaldien arteko bizitasuna desorekatua da guneen artean, zenbaitetan nekazari gazteak daudelarik.<br>▪ Zenbaiten ustez, gutxi hartzen dira aintzat udalerrian lehen sektorearen gizarte eta ingurumen funtzioak, adierazleen TA21 inkestan herritarrak aintzat hartzen dituzten.<br>▪ Nekazaritza azpisektoreak errepresentazioa du udalerriko hegoaldeko eremuko orografia lauari esker, iparraldean abeltzaintza eta basogintza direlarik garrantzitsuenak.<br>▪ Abeltzaintza ustiategiak euren tamaina handitu dute. | ▪ Eskualdeko Landa Garapenerako Elkartearekin lankidetzan, lehen sektoreari laguntzeko udal estrategia bat garatu, honako helburuak izango dituena:<br>o Nekazaritza lurren galera gelditu, edo ahal izan ezkero itzuli, Udaletxe eta Batzar Administratiboen inplikazio zuzenaren bidez adibidez, hauek udalerriko nekazaritza ustiapen lurrak eskuragarriago eginez (lurren bankua, errenta eta lagatzeen bitartekotza, etab.).<br>o Lehen sektoreari lotutako bertako ekimenak lagundu, bereziki nekazaritzako elikagaien industria eta landa turismoaren arlokoak, zeinetarako potentziala dagoen industria guneei lotuta, lanpostuen bultzada bilatzen duten udal ekimenetan lehen sektorea integratuz.<br>o Nekazaritza produktuen salmenta zuzena bultzatu, bai nekazaritza ustiategietan bertan edota udalerrian bertan ere, beharrezkoak diren bideak irekiz.<br>o Abeltzaintza eta nekazaritza hondakinen kudeaketari udalaz gaindiko irtenbide bat bilatu.<br>o Nekazaritza ustiapenaren jarduera nagusiaren osagarri izango diren beste batzuk ezartzea erraztu (zentro hipikoak, bestelako artisautza produktuen ekoizpen eta salmenta, sentsibilizazioko ekintzak, etab.).<br>o Nekazaritza ustiategiak dituzten jabeen formakuntza eta profesionalizatzea sustatu, bai eta belaunaldien arteko erreleboa ere, bereziki nekazari gazteei laguntza emanez.<br>o Herritarrak lehen sektoreak udalerrian sortzen dituen onuren inguruan sentsibilizatu, baita berau laguntzeko beharraren inguruan ere. |
| | Bizitasuna eta errendimendu ekonomikoa | 😐 | | |
| | Belaunaldien arteko bizitasuna | 😐 | | |
| | Gizarte eta ingurumen zereginak | ☹ | | |
| | Nekazaritza azpisektorea | ☺ | | |
| | Abeltzaintza azpisektorea | ☺ | | |
| | Basogintza azpisektorea | ☺ | | |

| GARAPEN EKONOMIKOA. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak. | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | AZPIATALAK | BAL. | DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK | JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK |
| | | | ▪ Gazta saltzeko bi leku daude. 6 behi-ustiategi eta 9 bildots ustiategi Euskolabelen daude.<br>▪ Onura Publikoko Mendi ugari ditu udalerriak (8.583 ha), izan ere, udalerriko azaleraren %84,24 Udaletxe eta Batzar administratiboen Onura Publikoko Mendiei dagokio.<br>▪ Ia ez dago baso ustiakuntzarik, Onura Publikoko Mendien azaleraren zati handi bat Gorbeiako PNean baitago.<br>▪ Gabeziak detektatzen dira, hala nola lursailen eskualdatzeko politika eza, elikagaien industriaren garapen urria, presio urbanistikoa, etab.<br>▪ Sendotasun moduan ikusten da gazteek bertan geratzeko duten joera, enpresen gertutasuna (nekazaritza-turismorako), ondare naturala, etab.<br>▪ Abeltzaintzako hondakinen kudeaketarako irtenbide kolektibo baten beharra ikusten da. | ▪ Udal antolamenduari lotuta, lehen sektorea bultzatzeko ekimenak burutu:<br>o HAPO berrian landa-lurrak dagokien bezala babestu.<br>o Nekazaritza ustiapenetan jarduera osagarriak ezartzea erraztu (zentro hipikoak, baserri-eskola, etab.), udal antolamendu eta araudiaren bitartez.<br>▪ Udal diru-laguntzen lerro espezifikoa sortu lehen sektorean lan egiten duten pertsonei zuzendua, trebakuntza, esperientzien elkartrukatzea, eta bestelako ekitaldiak antolatzeko (erakusketak, azokak, lehiaketak, etab.).<br>▪ Udalerriko jabetza publikoko baso baliabide ugariek eskaintzen dituzten aukeren inguruan hausnartu, jarduera ekonomiko eta enplegukoak aberasteko, eta ingurumen zerbitzuak zein aisialdirako ekintzetarako oinarriak eskaintzeko.<br>▪ Udalaren Onura Publikoko Mendien antolaketa eta kudeaketan parte-hartze aktiboa izaten jarraitu, basogintzako azpisektorean lanpostuak sor daitezen sustatuz, bai udalerrian, baita eskualdean ere. |

| GARAPEN EKONOMIKOA. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak. | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **AZPIATALAK** | **BAL.** | **DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK** | **JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK** |
| BIGARREN SEKTOREA, ZERBITZUAK ETA TURISMOA | Sektorearen egitura | 😐 | ▪ Industriaren Balio Erantsi Gordina %76tik %43ra jaitsi da 2000-2005 epean, 2005ean zerbitzu sektorea %49ra iritsi delarik. Industriak eskualdean baino pisu txikiagoa du.<br>▪ HAPO berriaren Aurrerapenari begira, Apodakako Hegoaldetik gune industriala zabaltzeko aukerarekin lan egiten ari da.<br>▪ Enpresa handi bat dago, Pepsico, non, tradizionalki Zigoitiko jende ugarik egin du lan.<br>▪ Zerbitzuak Merkataritza Zentroan biltzen dira, gainontzeko guneetan ia ez baitaude. Zerbitzu falta argi bat sumatzen da, esaterako, ez dago okindegirik, eta Gopegiko tabernak ez dira gauez irekitzen.<br>▪ Udaletxetik, merkataritza jardueraren baten irekiera bultzatzen saiatu da, baina inork ez du horren kargu egin nahi izan.<br>▪ Merkataritza Zentroa begi onez ikusten da udalerriari aberastasuna eman diolako, baina ez du kalitatezko lanposturik sortu.<br>▪ Gorbeiako PNa da baliabide turistiko nagusia, 3 hipikekin batera.<br>▪ Produktu turistikoa eskualde mailan definitzeko beharra ikusten da, eta ez bakarrik udalerri mailan.<br>▪ Bertako produktuak merkaturatzeko bideak faltan botatzen dira. | ▪ Etorkizuneko garapen industrialaren kokalekua definitu, eta Zigoitiko nekazaritza eta basogintza baliabideentzat eta balio naturalentzat mehatxua izan ez dadin dimentsionatu.<br>▪ Oinarrizko produktu/zerbitzuak hornituko dituzten establezimendu minimoen existentzia bermatu, bertako merkataritzako bideragarritasuna eta errentagarritasuna hobetzeko ekimenak babestuz, eta bere sustapenerako neurriak martxan jarriz, besteak beste:<br>o Tokiko jarduera ekonomikoa mantentzen lagunduko duten kontsumo ohituren inguruko sentsibilizazio ekintzak burutu herritarren artean.<br>o Zerbitzu establezimenduen aniztasun eta kopurua handitzeko bideak bilatzen jarraitu, eta daudenen ordutegiak zabaldu.<br>▪ Eskualde mailan turismoa eta ostalaritzaren garapenaren inguruan hausnarketa orokor bat egin dadin bultzatu, udalerri bakoitzak dituen baliabide osagarriak identifikatzeko, produktu bateratu bat osatzeko ahaleginak egiteko, eta turismoa abeltzaintzarekin bateragarri izan dadin bideak bilatzeko, artzakurrak direla eta.<br>▪ Zailtasun maila eta luzera desberdinetako oinezko bide eta ibilbide turistikoak diseinatu, seinaleztatu eta zabaldu, udalerriko baliabide turistiko, natural eta kulturalak bilduko dituztenak. |
| | Bizitasuna eta errendimendu ekonomikoa | 😐 | | |
| | Zerbitzuen sektorearen egitura | ☹ | | |
| | Zerbitzu sektorearen bizitasuna | ☺ | | |
| | Azpiegitura turistikoa | ☺ | | |
| | Turismo baliabideak eta erakargarriak | ☺ | | |
| | Produktuen egituratzea | ☺ | | |

<table>
<tr><th colspan="5">BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN-KALITATEA. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak.</th></tr>
<tr><th></th><th>AZPIATALAK</th><th>BAL.</th><th>DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK</th><th>JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK</th></tr>
<tr><td rowspan="7">URA</td><td>Hornidura eta banaketa sarea</td><td>☺</td><td rowspan="7">▪ Gune guztiak Zigoitiko Ur Partzuergoko parte dira.<br>▪ AMVISA-k gune guztiak hornitzen ditu, zenbaitek hartune propioak dituzten arren (Etxaguen, Murua, Manurga, Eribe, Berrikano, Buruaga).<br>▪ HAPO berriak Apodakan eta Ondategi-Gopegin tanga erregulatzaile berriak egiteko aukera behatzen du.<br>▪ Gune guztiek dituzte Kontrol eta Zaintza Unitateak.<br>▪ Sistemaren errendimendu indizea %39koa da, EAEko bataz bestekoa baino zertxobait baxuagoa.<br>▪ Ez dago hornidura arazo larririk, udara lehorretan ematen diren mozketa puntualak alde batera utzita, eta baita baratza eta lorategien ureztaketaren ondorio diren iluntzean ematen diren presio faltagatiko arazoak, jendea gaueko ureztaketa automatikoa instalatzen doan heinean konpontzen doazenak.<br>▪ Ur kontsumoa oso altua da, 2006 eta 2009 artean jaitsi den arren.<br>▪ Saneamendua hobi septikoen bidez egiten da nagusiki. HAPO berriak Apodaka, Berrikano eta Ondategin araztegiak eraikitzea aurreikusten du. Aldundiak Gopegi-Ondategirentzako araztegia egitea aurreikusten du, baina gainontzeko araztegien finantziazioa zaila ikusten da.<br>▪ Etxabarri-Ibiñak bere araztegia zabaltzeko/ordezkatzeko beharra du.<br>▪ Merkataritza Zentro eta industriek beren saneamendu sistema propioa dute.<br>▪ Zenbait gunetan hobi septikoek eragindako usain txarreko arazoak daude.<br>▪ Partzuergoak uraren kudeaketarako ordenantza erregulatzaile bat du. Tarifak eguneratu egin behar dira, zerbitzua defizitarioa baita.<br>▪ HAPO berria idatzi aurretik uraren hornidura eta saneamenduaren ikerketa bat egin da gune guztietan.<br>▪ Ez dira sentsibilizazio ekimenak burutzen. Herritarren ustez kontzientziazioa falta da. Hainbat etxebizitzetan kontsumo altuak ematen dira, eta zenbaitetan diru botere altuak ur kontsumo altuak ordaintzea arazoa ez izatea eragiten du.<br>▪ Uraren kalitatea onargarria da 2008an.</td><td rowspan="7">▪ Ur-hornidura sarean eta saneamenduaren arloan hobekuntza eta inbertsio plan bat idatzi, bere egoeraren balorazioa egin ondoren, Udaletxe eta Batzar Administratiboen artean.<br>▪ Arabako Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzarekin kontaktuak jarri, ur-hornidura sarean eta saneamenduaren arloan hobekuntza eta inbertsio planaren finantziazioari lotuta laguntzak bilatzeko.<br>▪ Udaletxe eta Batzar Administratiboen artean, Partzuergoaren testuinguruan, udalerriko ur kontsumo eta eskariaren jarraipena egiteko sistema eraginkor bat ezarri.<br>▪ Ur hornikuntzarako aplikatzen diren tarifen egokitzapen maila berrikusi, zerbitzua defizitarioa izan ez dadin lortzeko.<br>▪ Sustagarria kendu, edo baita zigortu ere, lorategi eta igerileku pribatuak mantentzeko behar baino ur kontsumo gehiago erabiltzen denean.<br>▪ Udalerriko nekazaritza ustiapenei lotutako ur hornidura eta saneamenduari buruzko gaiak udalerrian lehen sektorea bultzatzeko ekimenen artean sartu.<br>▪ Gune berde publikoak mantentzeko eta bideak garbitzeko erabiltzen den ura aurrezteko helburua duten baldintza eta neurriak garatu eta onartu, bertako Administrazioen aldetik.<br>▪ HAPO berrian etxebizitzetako uraren aurreztea sustatzera zuzendutako irizpide eta zehazpenak integratu, esterako:<br>o Eraikin berri eta eraikin zaharren garrantzia handiko errehabilitazioetan euri-uren aprobetxamendurako sistemak instalatzera behartu.<br>o Igerileku pribatuen instalazioa erregulatu.<br>o Lorategi pribatuetan ureztaketa automatikoa instalatzera behartu.<br>o Lorategi pribatuak xerolorezaintza irizpideen araberako mantentzea eta diseinua bultzatu.<br>▪ Herritarren artean ur kontsumoa murriztearen inguruko sentsibilizazio kanpainak burutu.<br>▪ Xerolorezaintzako ikastaroak antolatu, udalerrian lorategia duten familia bakarreko etxebizitzetan bizi diren pertsonei zuzendua batez ere.</td></tr>
<tr><td>Eskaera eta kontsumoa</td><td>☹</td></tr>
<tr><td>Saneamendua eta arazketa</td><td>☹</td></tr>
<tr><td>Araudia eta kudeaketa</td><td>😐</td></tr>
<tr><td>Sentsibilizazioa</td><td>☹</td></tr>
<tr><td>Ur-baliabideak</td><td>😐</td></tr>
<tr><td>Uraren kalitatea</td><td>😐</td></tr>
</table>

| BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN-KALITATEA. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak. | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **AZPIATALAK** | **BAL.** | **DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK** | **JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK** |
| HONDAKINAK | Hiri hondakinak sortzea | ☺ | ▪ Positiboki nabarmentzen da etxeko hondakinen sorrera txikia, EAEko bataz bestekoaren azpitik, eta beheranzko joera duena.<br>▪ Ez dago hondakinen gaikako bilketaren daturik.<br>▪ Herritarrak ez daude pozik puntu berde mugikorraren kudeaketarekin.<br>▪ Eskatu duten udalbatza guztietan obra-hondakinentzako ontziak jarri dira. Zenbaitetan erabilera okerragatik kendu da, eta besteak saturatuak daude.<br>▪ Etxabarri-Ibiñak inausketa hondarrak, tamaina handikoak eta obra-hondakinak uzteko puntu bat du, baina merkataritza zentroarekiko gertutasunagatik erabilera okerra ematen zaio.<br>▪ Inausketa hondarrentzako ontziak instalatzeko zain dago, Aldundiarekin egindako hitzarmen bidez.<br>▪ Gopegin, erabilitako etxeko olioa jasotzeko etxola bat instalatuko da.<br>▪ Ez dago mugikortasun murriztua duten pertsonentzako egokitutako ontzirik.<br>▪ Herritarrek arroparen ontziaren bilketa maiztasuna handitzea eskatzen dute.<br>▪ Ondategin ontziak lurperatu egin dira.<br>▪ Apodakan hondakinak uzteko kontrolik gabeko puntu bat existitzen da, zentro sozialaren atzean.<br>▪ Herritarren ustez hondakinen kudeaketa eta ontzien mantenimendua hobetu daiteke.<br>▪ Gizalege arazoak detektatzen dira, baina sentsibilizazio ekintzak egiten dira.<br>▪ Industria hondakinak gutxi dira, baina handitzen doaz.<br>▪ Abeltzaintza hondakinen kudeaketarako irtenbide kolektibo bat beharrezkoa da.<br>▪ Udaletxe eta Batzar Administratiboen artean hitzarmen bat existitzen da (Murua izan ezik), bideen garbiketari lotuta. TA21 adierazleen inkestan bideen garbiketa hobetzeko eskaeraren bat jaso da. | ▪ Gorbeako Inguruen Partzuergoan hondakinen sorrera eta gaikako bilketaren inguruan datuak udalerrika ezagutzeko neurriak hartu.<br>▪ Udaletxe eta Batzar Administratiboen arteko egungo koordinazio eta kolaborazio erlazioa zabaldu, udalerriko hondakinen bilketa eta bideen garbiketaren inguruko aspektuak udalerrian eta gune guztietan barneratzeko.<br>▪ Gune guztietan hondakinen ontziak pixkanaka lurperatzeko interesa aztertu.<br>▪ Ontzien kokalekua eta herritarren eskaeren arteko egokitzapen maila ebaluatu.<br>▪ Guneetako obra-hondakinen ontzien eta Etxabarri-Ibiñako inausketa hondar, tamaina handiko eta obra-hondakinentzako puntuen gaineko behin betiko erabaki bat hartu.<br>▪ Detektatzen diren kontrolik gabeko hondakinak uzteko guneen gainean jardun.<br>▪ Arabako Foru Aldundiak aurreikusitako inausketa hondarren ontziak kokatzea eskatu.<br>▪ Erabilitako etxeko olioa jasotzeko puntu bat edo gehiago instalatu.<br>▪ Arropa jasotzeko maiztasuna egokia eta ontzien garbiketa nahikoa dela bermatu.<br>▪ Bideen garbiketaren kalitatea ebaluatu, eta beharrezkoak ikusten diren egokitzapenak sartu.<br>▪ Arabako Foru Aldundiari puntu berde mugikorrarentzako egutegi finko bat ezartzea eskatu, eta modu egokian zabal dezala.<br>▪ Sentsibilizazio ekimenak egiten jarraitu, bereziki herritarren arteko gizalegezko jarrera bultzatzeko.<br>▪ Puntu berde mugikorrarentzako egutegi finko bat ezarri, eta modu egokian zabaldu (udalaz gaindikoa). |
| | Gaikako bilketa | 😐 | | |
| | Hiri hondakinen kudeaketa | 😐 | | |
| | Ordenantzak eta fiskalitatea | ☺ | | |
| | Sentsibilizazioa | 😐 | | |
| | Hondakin industrialak | 😐 | | |
| | Nekazaritza hondakinak | ☹ | | |
| | Eraikuntzaren hondakinak | ? | | |
| | Bide garbiketa | ☺ | | |

| BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN-KALITATEA. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak. | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **AZPIATALAK** | **BAL.** | **DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK** | **JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK** |
| ENERGIA | Egitura energetikoa | ☹ | ▪ Urteko argindar kontsumoa oso altua da, baina behera doa. Argindar kontsumo ez industriala EAEko altuenetarikoa da.<br>▪ Herritarrek eraginkortasun energetikoa hobetu, herrietako transformatzaileak kendu, eta gas naturala jartzea nahi dute.<br>▪ Eguzki energia termikoaren ekoizpena handia da. Badago potentziala biomasa erabiltzeko. Eskolako proiektua eraldatu da biomasako galdara bat jartzeko.<br>▪ 2009an udal instalakuntzen energia kontsumoa eta argiteri publikoaren inguruko kontu ikuskatze bat egin zen, 70.000€-ko inbertsioen bidez energiaren %30 aurrezteko ekimenak gomendatzen dituena.<br>▪ Ez da udal ekipamenduen kontsumoa erregistratzen.<br>▪ Argiteri publikoko gastua %43 handitu da 2007 eta 2009 artean. Ikuskatzeak fluxu egonkortzaile-murriztaileak jartzea proposatzen du.<br>▪ Sentsibilizazio ekintzak egiten dira.<br>▪ Ez dago energia ziurtagiria duen etxebizitzarik. | ▪ Udalerriko biztanleriari eta industriari zuzendutako sentsibilizazio ekimenak burutu, kontsumo energetikoa murriztera zuzenduak.<br>▪ Udalerrian energia berriztagarriak jartzeko aukera egokienak aztertzen jarraitu, biomasaren erabilera batez ere, eta hauen hedapena bultzatzen jarraitu.<br>▪ Energia ikuskatzean gomendatutako ekimenak abian jarri, bai udal instalakuntzetan eta bai argiteri publikoan ere.<br>▪ Herri guneetako transformadore elektrikoen kokalekua aldatzeko aukerak aztertu.<br>▪ Udaletxe eta Batzar-Administratiboen artean Tokiko Administrazioaren argindar kontsumoaren jarraipenerako sistema bat adostu, eta Udal ekipamenduen kontsumo eta argiteri publikoaren erregistro bat sortu.<br>▪ HAPO berrian eraikuntzan eraginkortasun energetiko eta energia berriztagarrien inguruko gaiak txertatu. |
| | Energia berriztagarriak | 😐 | | |
| | Administrazioaren kontsumoa | ☺ | | |
| | Udal-ekipamenduen kontsumoa | 😐 | | |
| | Argiteriaren kontsumoa | ☹ | | |
| | Udal-ibilgailuen kontsumoa | ? | | |
| | Energiaren kudeaketarako araudia | 😐 | | |
| | Sentsibilizazioa | ☺ | | |
| | Energia azpiegiturak | ☺ | | |
| | Eraikuntza | 😐 | | |
| INGURUMEN KALITATEA | Atmosferara isuriak | 😐 | ▪ Isuriak errepide (AP-1 eta N-622), merkataritza Zentro (3.500 aparkaleku) eta udalerriko industria gunean dute jatorria.<br>▪ Aireportua, N-622, eta AP-1 dira Apodaka, Etxabarri-Ibiña, Mendarozketa, Zaitegi eta Letonaren zarata iturri nagusiak.<br>▪ Zaitegiko Batzar Administratibotik zarata neurketak eta neurri zuzentzaileak eskatu dira.<br>▪ Ia ez dago kutsatutako lurzorurik. Badago Aldundiarekin egindako hitzarmen bat, Letonako harrobiko kutsadura kentzeko helburua duena, baina 2010ean ez da horretarako aurrekontu partidarik zuzendu.<br>▪ Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartea (UAGA) Antolakuntzako Aholkularitza Batzordean dago.<br>▪ Ez dago horren inguruko arau tresna ez eta sentsibilizazio ekintzarik ere. | ▪ Zaitegi erasaten duen zarataren murriztaileak instalatzeko eskaeraren jarraipen egoki bat egin, eta Apodaka, Etxabarri-Ibiña, Mendarozketa eta Letonarentzako eskaera analogoak egitea egokia denentz baloratu.<br>▪ Ekintza edo instalazio kutsatzaileak izan daitezkeenak pairatzen edo pairatu dituzten lurzoruen gainean jardun.<br>▪ HAPO berrian nekazaritza balio handien duten lurzoruen babesa integratu.<br>▪ Zaitegi erasaten duen zarata murrizteko gailuak instalatu (udalaz gaindikoa). |
| | Airearen kalitatea | ☺ | | |
| | Kalitate akustikoa | 😐 | | |
| | Kalitate akustikoaren kudeaketa | 😐 | | |
| | Lurzoruen kalitatea | ☺ | | |
| | Lurzoruen kalitatearen kudeaketa | 😐 | | |
| | Sentsibilizazioa | ☺ | | |

| BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN-KALITATEA. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak. | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **AZPIATALAK** | **BAL.** | **DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK** | **JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK** |
| RRISKUAREN ETA INGURUMEN-KUDEAKETA | Arriskuen eragina | 😐 | ▪ Zigoitin sua, elurra eta Ondategi-Gopegin uholdeekin lotutako arriskuak daude.<br>▪ Pertsona batzuen ustez ibaiaren garbitasun faltak uholde arriskua handitu dezake.<br>▪ Ez dago Larrialdietarako Udal Planik, baina koordinazioa bai.<br>▪ Pepsico-k bere Larrialdietarako Plana du, eta bere emisio eta isuriak legeak ezartzen duenaren azpitik daude.<br>▪ Lur hiritartuetako sute-aho tasa EAEko baxuenetarikoa da.<br>▪ Ez da ezartzen erosketa eta kontratazio publiko berdeko irizpiderik.<br>▪ Ez dago ingurumen akreditazio/ziurtagiririk duen enpresa ez eraikinik ere.<br>▪ Energia kontsumoaren ikuskatzearen gomendio batzuk abian jarriko dira.<br>▪ Ingurumen sentsibilizazioaren inguruko ekintzak burutzen dira. | ▪ Hiri-lur zein lur ez hiritargarrian kokatutako sute-ahoen kopurua berrikusi eta egokitu.<br>▪ Kontratazio eta erosketa publiko berdearen inguruko barne sentsibilizazio ekintzak burutu.<br>▪ Udaleko Hamazazpi aldizkarian aldizka jasangarritasun gaien inguruko sentsibilizazio artikuluak argitaratzen jarraitu. |
| | Arriskuen kudeaketa | 🙂 | | |
| | Arriskua eta jarduera ekonomikoak | 🙂 | | |
| | Jarduera ekonomikoen kudeaketa | 😐 | | |
| | Kontratazio eta erosketa publiko berdea (KEPB) | 😐 | | |
| | KEPBan sentsibilizazioa | 😐 | | |
| | Administrazioaren ingurumen kudeaketa | 🙂 | | |
| | Ingurumen-sentsibilizazioa | 🙂 | | |
| KLIMA ALDAKETA | Klima aldaketari ekarpena | 😐 | ▪ Ez dago Negutegi Efektuko Gasak neurtzeko sistemarik, ezta klima aldaketaren aurkako antolaketarako tresnarik ere. | Ez da jarduerarako eremu-lehenetsirik identifikatu. |
| | Klima aldaketaren aurkako borroka | 😐 | | |
| | Isurbideen kudeaketa | 😐 | | |
| | Klima aldaketari egokitzea | 😐 | | |
| | Sentsibilizazioa | 😐 | | |

<table>
<tr><th colspan="5">SENTSIBILIZAZIOA, PARTEHARTZEA ETA BARNE KOORDINAZIOA. Ebaluazio orokorra eta jarduerarako eremu-lehenetsiak.</th></tr>
<tr><th></th><th>AZPIATALAK</th><th>BAL.</th><th>DIAGNOSTIKOAREN GAI AZPIMARRAGARRIENAK</th><th>JARDUERARAKO EREMU-LEHENETSIAK</th></tr>
<tr><td rowspan="5">KOMUNIKAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA PARTEHARTZEA</td><td>Komunikazioa</td><td>🙂</td><td rowspan="5">▪ Komunikazio tresna gehienak norabide bakarrekoak dira.<br>▪ Sentsibilizazio ekintzak egiteko guneak uzten dira.<br>▪ Aurrera pausoak ematen ari dira Eskola Agenda 21-arekin hasteko.<br>▪ Inkestan, Udala/Administrazio Batzorde eta herritarren arteko komunikazioa ez da gainditzera iristen (4,39 10etik).<br>▪ TA21 inkestan parte hartu dutenen %90ak TA21aren berririk ez du.<br>▪ Udaletxean bi aholkularitza batzorde daude herritarrak parte hartu ahal izateko. Batzorde batzuetan auzolanak arrakastaz funtzionatzen dira.<br>▪ Herritarren ustez azken urteotan parte hartzea beherantz joan da.<br>▪ Inkestan parte hartu duten %99k ez du udalerriari eragiten dizkion gaietan parte hartu nahi, TA21 kasu.<br>▪ Elkarteen sarea oso aberatsa eta aktiboa da.</td><td rowspan="5">▪ Udalerriko elkarte eta taldeekin harremanarekin aurrera egin.<br>▪ Udalerriko elkarte eta taldeekin harremanak dituzten udal langileen artean informazioa elkartrukatzeko sistema bat ezarri, sinergiak bilatzeko asmoz.<br>▪ Udalerrian parte hartzea handitzeko, teknologia berriak eskaintzen dituzten aukerak aztertu, esaterako, Udaletxeko Web orrialdearen bidez.<br>▪ Herritarren parte hartzeak udal antolakuntza eta kudeaketan dituen erantzunak zabaldu, herritarrak gogo handiagoarekin parte hartzera motibatzeko asmoz.<br>▪ Tokiko Agenda 21aren inguruan informazio eta sentsibilizazio ekimenak burutu.</td></tr>
<tr><td>Sentsibilizazioa</td><td>😐</td></tr>
<tr><td>Partaidetzarako kultura</td><td>😐</td></tr>
<tr><td>Partaidetzarako bideak</td><td>🙂</td></tr>
<tr><td>Elkarteen sarea</td><td>🙂</td></tr>
<tr><td rowspan="5">BARNE KOORDINAZIOA</td><td>Barneko koordinazioa</td><td>😐</td><td rowspan="5">▪ Udalbatzei zuzendutako laguntzen ordenantza bat existitzen da.<br>▪ 2009.etik hona Udalak TA21aren inguruan aholkularitza teknikoa du.<br>▪ 2009.ean Aalborgeko Konpromisoak sinatu ziren.<br>▪ Hilero batzar bat egiten da, eta astero biltzen den batzorde berezi bat.</td><td rowspan="5">▪ Tokiko Agenda 21eko aholkularitza teknikoa finkatzea, eta aldiro aztertzea baliabideak udalerriaren beharrei egokitzen direla.<br>▪ Udala eta Batzar-Administratiboaren arteko harremanak aztertu eta hobetzeko aukerak identifikatu, esaterako, maiztasunez biltzen den Batzar-Administratiboekin erlazio-batzorde bat sortuz.</td></tr>
<tr><td>TA21 kudeatzeko eredua</td><td>?</td></tr>
<tr><td>Baliabide teknikoak</td><td>🙂</td></tr>
<tr><td>Buruzagitza politikoa</td><td>🙂</td></tr>
<tr><td>Udal kudeaketaren planifikazioa</td><td>🙂</td></tr>
</table>